

LUHUSO, B PLANA ABIAN JARTZEN DA

2016KO ABENDUAREN 16A, OSTIRALA. Goizean, egunkariak aurreratu zuten Zigorrak Ezartzeko Parisko Auzitegiak ez zuela kontuan izan Ibon Fernandez Iradi euskal presoak zuen gaixotasun larria, hots, esklerosi anizkoitza, eta Lannemezan-eko espetxean jarrai zezan erabaki zuela. Eguerditik, kostaldean, Angeluko eta Baionako saltoki handiak beteta zeuden, Eguberriak baino astebete lehenago korridoreak betetzen dituzten bezeroez gainezka. Egun distiratsua zen, hodeirik gabekoa, baina Lapurdin hotza egin zuen, zero gainetik 5^o, ozta-ozta.

Eguerdia baino apur bat lehenago, Mixel Bergouignan Txetx Etcheverryrekin bildu zen Biarritzen, herri horretan bertan alokatu zuen furgoneta emateko. Etcheverryk zenbait ibilbide egin zituen, inor segika ez zuela egiaztatzeko. Luze eman zuen horretan. Ibilgailua goiz horretan alokatu zuten, aldez aurretik jakinarazi gabe; beraz, pentsatzekoa zen Poliziak ez zuela markatuta izango. Ipar Euskal Herrian ohiko praktika da militante abertzaleen ibilgailuetan jarraipen-gailuak ezartzea. Segurtasun-neurri horiek hartuta, Etcheverry armamentuaren kutxak jaso behar zituen tokira abiatu zen. Geroago, berriz elkartu ziren, Bergouignanek furgonetari bidea ireki ziezaion Luhusoraino. Ordura arte, guztia aurreikusi moduan joan zen. Pausorik zailena emana zegoen. Egoera gorabehera, lasai zeuden. Orain gainerakoa bete behar zuten. Bideari ekin zioten, berriz ere, Eguberrietako erosketetan zebiltzanen beste ibilgailuen artean nahastuta.

Kostaldea atzean utzi eta Ustaritze eta Kanbo zeharkatu ondoren, Luhusora heldu ziren, kotxez ordu erdiko bidea eginda. Helmuga Errekarte baserria zen; etxeak hainbat pieza zituen, elkarren artean,

nolabait, bereiziak. Horietako bat artisauek erabili zuten. Furgoneta zuritik hamaika kutxa jaitsi zituzten, zeinak zM letrak zeramatzen hamar loteri zegozkien, eta biltegiaren eremuan sartu zituzten; bertan, oihal zuriz estalitako mahai luze bat zuten prestatuta. Ateak itxi zituzten. Arratsaldeko 16:30ak ziren. Gainerako parte-hartzaileak hel zitezen itxaron behar zen, eta lan asko zegoen oraindik egiteko armak deuseztatzen hasi aurretik, esaterako, bilgarria ateratzea eta ETAK egoera onean mantentzeko emandako koipea kentzea. Bideoak ere grabatu behar zituzten, hurrengo egunean Harold Good apaizari harrera egiteko.

Hasieran dena ongi zihoan, baina hortik gutxira zeruan motor-hotsa entzun zuten, eta halako susmoa piztu zitzaien. Bergouignanek lasaitu zituen, adieraziz horrelako hotsak sarritan entzuten zirela Baiguran zegoen hurbileko aisialdi-gunean. Alabaina, 17:00ak aldera, Errekarte inguruko hainbat puntutatik zelatatzen zeudenetako batek telefonoz abisua eman zion Etcheverryri. Boluntario ugari ari ziren lanean operazioan, askotariko zereginetan, zelatatzetik txofer lanak egitera. «Polizia asko dago», esan zion. Gertakaritik zenbait egunera, auzotarrek adierazi zuten goizean goizetik jende arrotza, ezohiko ibiltariak, aurpegi ezezagunak zebiltzala Luhuso inguruan.

Ebidentziak gorabehera, artisauek jarraitzea erabaki zuten. Gertalekua prest zuten, dagoeneko. Guztia zuhurtasunez egin zuten. Txetxek berak, Parisera maiz egiten zituen bidaietako bat aprobetxatuz, aurreordainketako zazpi telefono mugikor erosi zituen, auzo desberdinetako beste hainbeste dendatan, susmorik ez eragiteko. Klandestinitatearen arauak agintzen zuten moduan. «Konspirazio-telefonoak» ziren, Poliziaren txostenak gerora emandako izena erabiliz.

Gidoiari zehatz-mehatz jarraituz, hamaika kutxak irekitzeari ekin zioten. Hamaika ziren, baina inbentarioko hamar loteri zegozkien. Lote bat bi kutxatan banatuta zegoen, bata besteak baino nabarmen txikiagoa. Zirudienez, lote horretako materialaren bolumena handixeagoa zen. Kit osoak zirela iruditu zitzaien: bakoitzean pistolak, lehegailu kopuru zehatz bat eta detonagailuak zeuden. Segurtasunagatik, edukia ateratzen eta lehegailuak detonagailuetatik banatzen joan ziren, eta armak mahai baten gainean utzi zituzten. Stephane Etchegaray, *Etxe*, oraindik ere luzatu egingo zen eszenaren bideoa grabatzeko, kamera tripodearen gainean jarrita. Poliziaren txostenak adierazten du grabaketak 19:48tik 20:19ra bitarte egin zirela.

Zelatariak telefonoz abisua eman eta gero, Txetxek eskatuta, Bergouignan baserritik irten zen, jasotako alertak benetako arrazoia ote zuen egiaztatzeko. Hain zuzen ere, kalez jantzitako zenbait pertsona mugimendu arraroak egiten hauteman zituen; litekeena zen poliziak izatea.

Etcheverryk Berhokoirigoini deitu zion etxea inguratuta zegoela eta hara joan edo ez erabaki behar zuela esateko. Aldi berean, Bergouignan Makeara abiatu zen haren bila, egoeraz hitz egiteko. Han, Berhokoirigoinek oztopoak oztopo Luhusora joatea erabaki zuen, eta operaziorako lortutako telefono mugikorra erabiliz Michel Tubianari deitu zion, operaziotik kanpo geratzeko eskatzeko, bozeramailetako bat gutxienez aske egon zedin. Bergouignan Errekarteara itzuli zen bere kotxean eta, geroago, Beatrice Molle-Haran Berhokoirigoinen bila joan zen, bere etxera ekartzeko.

Artisauen arteko egiaztapen labur baten ostean, erabaki zuten Berhokoirigoin eta Beatrice Molle-Haran irten egingo zirela, Tubiana Kanbon ezarritako segurtasun-hitzordura agertu zen ala ez egiaztatzen. Ia ordubete zain egon eta gero, Tubiana ez zen agertu. Jakinaren gainean zegoen, eta helburuak lortuta. Zirudien moduan atxiloteta masi-boa egonez gero, helburua zen artisauen hiru bozeramaileak batera ez atxilotzea, eta horietako bat gutxienez kalean geratzea, iritzi publikoari bere zereginaren berri emateko.

Kanbon Tubianaren zain zeudela, Etcheverryk mezu bat grabatu zuen Etchegarayren kameraren aurrean: «Duela bost urte utzi zuen ETAK borroka armatua. ETAK bere armamentua eman nahi du, deuseztatzeko. Baina ezin du hori egin, estatuek eragotzi dutelako, materiala zigilatu eta inbentariatu duten militanteak atxilotuz». Materialaren planoak estalitako gela batean grabatu zituen, tokia inork ezagutuz ez zezan.

Errekarteara itzultzen ari zirela, baserriaren jabea eta Berhokoirigoin atxilotu zituzten, handik hurbil. «Lehergailu-teknikarien zerbitzuek esku hartzen eta tokia erregistratzen zuten bitartean, Mixel Berhokoirigoin eta Beatrice Molle-Haran atxilotu zituzten azken horren etxetik hurbil, bere kotxean zihoazela, 20:55ean», zioen txostenak. Hain zuzen ere, Polizia ordurako etxean sartu zen.

20:35ean eraso-taldeek baserria hartu zuten. Bergouignan atea-
ren ondoan zegoen, haiek gutxienez segundo batzuek geldiarazteko, Etcheverryk astia izan zezan unerako prestatutako txio batzuk bidal-

tzeko. Kontu bat sortu zuen: @bakeaEHan, PaixEnPB/BakeaEHan izenarekin. Ez zuen mugimendurik eta ez zion beste inongo txiolariri jarraitzen. Mugikorra hartu eta zirriborroak ireki zituen. Argazkiak ere prest zituen. Polizia-txostenean agertzen da haren mugikorraren memoria-txartelean tailerreko zenbait argazki zeudela, bezperan egindakoak, non deuseztatze-makinak prest agertzen ziren.

Bergouignan entzun zuen «Polizia da!» oihukatzen, eta lehenengo txioa bidali zuen, ikurrina baten argazkiarekin batera: «*Louhossoa opération police en cours pour empêcher la société civile de procéder à destruction armes d'ETA Rassemblement immédiat immédiat!*» (Polizia-operazioa Luhuson, gizarte zibilak ETAREN armak suntsitzea eragozteko. Elkarretaratzea berehala, berehala!). Ipar Euskal Herriko lau irratiak (Antxeta, Gure Irratia, Irulegi eta Xiberoko Boza) biltzen dituen Euskal Irratiak federazioak operazioaren toki zehatzari buruz galdetu zuen, baina ez zuen erantzunik jaso. Beste zortzi katek zuzenean jaso zuten mezua: Bleu Pays Basque, Pays Basque Info, Enbata, Iparraldeko Hitza, The Associated Press agentzia, EITB, Franceinfo eta BFMTV, eta Parisko bi kazetari, Mediapart egunkari digitaleko Antton Rouget eta 2014an «CBNEWS» aldizkariak Frantziako egunkaririk hoberena izendatutako «La Croix» egunkari katolikoko Patxi Berhouet.

Bigarren txioa zabaldu zen, oraingoan argazkirik gabe: «*Rassemblement immédiat et pacifique à Louhossoa pour soutenir processus de paix La société civile a enclenché la destruction des armes d'ETA*» (Berehalako bakezko elkarretaratzea Luhuson, bake-prozesuaren alde egiteko. Gizarte zibilak abian jarri du ETAREN armen suntsipena). Eta hirugarren bat: «*Opération policière en cours à Louhossoa pour entraver démantèlement arsenal ETA par la société civile. Venez appuyer le processus de paix!*» (Polizia-operazioa abian Luhuson gizarte zibilak ETAREN armategia deuseztatzea eragozteko. Etor zaitez bake-prozesuaren alde egitera!). Oraingoan, armak deuseztatze erabiliko zituzten leuntzeko eta zulatzeko makinak argazkia bidali zuen. Aurreko hedabideez gain, beste batzuek ere jaso zituzten mezuek: Mediabaskak, France 3k, France-Pressek eta beste kazetari batzuek, esaterako, AFP Pays Basque agentziako Colette Larraburuk eta agentzia berak Bordelen zuen ordezkariak.

Une horretan, agenteak beren eraso-fusilekin sartu ziren, mira holo-
188 grafiko eta laser-erakusle eta guzti, gaez ikusteko betaurrekoekin, eta

Txetx Etcheverryren burura apuntatu zuten. Sekulako asaldura sortu zen. Hala ere, astia izan zuen laugarren txio bat bidaltzeko eta telefonoa armairu azpira botatzeko, Poliziak arma bat zela pentsa ez zezan: «*La société civile a pris ses responsabilités et enclenché démantèlement arsenal d'ETA. Opération policière en cours pour l'en empêcher*» (Gizarte zibilak bere gain hartu du bere erantzukizuna, eta ETAREN armategia deuseztatzen hasi da. Poliziak operazioa abiarazi du hori geldiarazteko). Mezu hori ere beste argazki batekin doa, aurrekoaren moduan, kalitate txarrekoa, zeinak gertaleku bera agertzen duen, beste ikuspegi batetik.

Ilunpean begi-pare berde ugari sumatu zituen, eta hauteman zuen bere aurpegia puntu gorritz betea zegoela, itu modura fokuratuta: «*Ne tirez pas, je suis un militant non violent, un militant pour la paix*» (Ez egin tiro, aktibista ez-biolentoa naiz, bakearen aldeko aktibista). Agente batek berehala erantzun zuen, ia instintuz, esaldi ezin adierazgarriago batekin: «*Mais vous parlez français?*» (Baina zuk frantsezez dakizu?). «*Mais oui*», jakina, «*je suis français*»...

Igorritako deiari erantzunez, hainbat auzotar eta kazetari bildu ziren handik hurbil. Nahiz eta hotz handia egin, solidarioak bertan egon ziren goizeko 06:30ak pasatxo arte, hots, atxilotuak Baionara eramane zituzten arte.

Polizia-operazioa zehatz-mehatz diseinatu zuten, ohikoa zen moduan, Parisetik hurbileko Bievresen dagoen RAID unitateko eraso-konpainia bateko agenteekin. Hori bai, ohiko operazio batek eskatzen duen zehaztasunarekin, baina Luhusokoa ez zen ohikoa. Polizia zientifikoko adituek emeki egin zuten lan arma bakoitza bilgarri berezi batean sartzeko, protokoloari jarraikiz; bitartean, Baionako Poliziak, polizia judizialaren lanak egiten, etxea aztertu zuen.

Beste polizia talde batzuek ere hartu zuten parte operazioan; horrek aditzera ematen zuen agian aurretiko informazio nahasiak zituztela. Nabarmena zen eraso-guardiei «ETAko militante arriskutsuak» atxilotu behar zituztela esan zieten. Errekarte barruko nahasteak agerian jarri zuen Poliziak ez zekiela zehazki zer gertatzen ari zen. Baionako agenteen zuzendariak berak Txetxi galdetu zion ea Tubiana atxilotuen artean zegoen.

Baina Tubiana operaziotik kanpo geratu zen, artisauek aurreikusitako moduan. Bere izena atxilotuen artean agertu zen teletipoetan. France Press agentziako kazetari batek mugikorrera deitu zion eta giza esku-

bideen aldeko eskarmentu handiko aktibistak berehala erantzun zion. Gezurra zen atxilotuta zegoela. Eta Tubianak gidoiari jarraitu zion: «ETAren ekimen boluntarioa da, armagabetzeko. Asmoa armak deuseztatzea zen, Frantziako agintariei bidali aurretik». Ez zuen ezer esan, baina hurbileko beste etxe batean Harold Good apaiza zegoen; haren asmoa hurrengo egunean armategiaren deuseztatzearen fede-emaile izatea zen, artisauen apustuak arrakasta izanez gero, nahiz eta gertagaitza izan. Abenduaren 16 hartan, lehenago, «zaindaria»ren giltzak heldu ziren.

SDATAren 127. taldeak egindako atxiloten txostenak operazioaren helburuak argi ditzake. Zera esanez hasten da: «2016ko abenduaren 16an, DGSik Parisko atal antiterroristari jakinarazi zion ETA erakunde terroristak armak eta lehergailuak gordetzen zituela Haranen alargun zen Beatrice Molleren etxean. Hain zuzen ere, dirudienez ETA erakunde bere armategi militarren inbentarioa egiten ari zen. Halaber, ekintza horren helburu zen armak ongi garbitzen zirela bermatzea eta material hori iraganeko ekintza kriminaletan erabili izanaren froga guztiak desagerraraztea».

Hedabide digitalek helarazten zituzten albisteei buruzko lehenengo zalantzak abiadura izugarrian zabaldu ziren. Twitter argiaren abiadura zebilela zirudien. Gauerdian, dagoeneko ahots ugari jaritzen zuten zalantzan Espainiako hedabideek ETAren aurkako operazio handi bati buruz zabaldutako berria. Espainiako Barne Ministerioak adierazi zuen «ETARI izugarritzko kolpea» eman zitzaiola eta «2014ko otsailekoa bezalako beste propaganda-ekintza bat» zela, Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen aurrean inbentariatutako lehenengo lotea aipatuz. Gaueko 23:37an, dagoeneko, Ministerioko buru zen Juan Ignacio Zoidok adierazpen hau egin zuen txio baten bidez: «Zorionak Guardia Zibilari; ETAren hainbat arma eta lehergailu konfiskatu eta hiru pertsona atxilotu ditu Frantziaren lankidetzari esker». Ordubete geroago, Guardia Zibilak beste mezu bat bidali zuen: «DGSiak eta Guardia Zibilak armaz eta lehergailuz betetako armategi bat topatu dute, Frantzian ETAren aurka egindako operazio batean».

Hurrengo egunean, «El Mundo» egunkariak berria eman zuen, ETAren dokumentuak konfiskatu zituzteneko argazki batekin, baina... 1974koa zen! «La Razon» egunkariak adierazi zuen operazioa gauera aurreratu zutela, ezohiko gertakaria, «atxilotuek mugimendu arraroak egin zituztelako eta ihes egingo zutela susmatu zelako». Albiste argiga-

rriei jaramonik egin gabe, «La Razon» egunkariak eta Espainiako beste egunkari batzuek Tubiana atxilotu zutelako mezuari eutsi zioten.

Mediabask beste hedabideei aurreratu zitzairen, eta lau gutun argitaratu zituen, bi artisauenak eta bi ETARENak, non ibilbidearen edukia eta armagabetzearen asmoa azaltzen ziren. Lehenengoa urriaren 3koa zen eta azkena, ETAREN erantzuna, azaroaren 15koa: «Gure helburua ETA erakunde ez armatutzat ahal bezain laster deklaratea da». Hedabide gehienek berehala argitaratu zituzten, baina Espainiakoez Barne Ministerioaren mezuetan trabatuta jarraitzen zuten. Guztira bost gutun ziren, bi ETARENak, bi artisauenak eta artisauen hirugarren bat, urriaren 25koa, non armagabetzearen eragile izateko asmoa adierazten zuten.

Ebidentziak eta gezurtatzeak gorabehera, atxilotuak Baionara eramanean zituztenean, Le Roux Barne-ministro izendatu berriak hedabideei ohar bat helarazi zien, zeina erabat zuzendu behar izan zuen ordu batzuk geroago. Aurretik idatzitako testu horretan segida ematen zitzaion kontakizun bati; hain zuzen ere, «El Mundo» egunkariaren filtrazioarekin, Carleponteko zuloarekin eta Mikel Irastorzaren atxiloketa-rekin hasitako kontakizunari. Guztia zaku berean. Hala zioen:

«Bruno Le Roux Barne-ministroak zorionak ematen dizkie DGSiko, SDATko eta Bordeleko DIPJko poliziaei, atzo arratsaldean Pirinio Atlantikoetako Luhuso herrian ETA erakunde terroristarekin lotuta bost norbanako atxilotu zituztelako. Halaber, operazioari esker arma, lehegailu eta munizio asko konfiskatu da. RAIDaren, Baionako BRIAREN, Polizia tekniko zientifikoaren eta lehegailu-teknikarien zerbitzuaren laguntzaz gauzatu da. Zerbitzuen artean eta Espainiako agintariekin izandako lankidetzak bikainaren emaitza da».

Hurrengo paragrafoan zegoen mezuaren segida: «Operazio hau ETAREN aurkako beste kolpe gogor bat da, aurreko urriaren 12an Compiègneko basoan arma asko aurkitu eta azaroaren 5ean, Pirinio Atlantikoetako Azkaine herrian, erakunde terroristaren aparatua militarren ustezko burua eta bi konplize atxilotu ondoren. Barne Ministerioak gogorarazten du Frantziak mota guztietako terrorismorekin aurka borrokatzeko asmo osoa duela».

Bere ohar gogorrean, armagabetzeaz hitz egitea saihestuz, Le Rouxek gerra-hizkuntza erabiltzen zuen, ETAK sei urte lehenago armak utzi izan ez balitu bezala, bere egitura militarrek desegin izan ez balitu bezala, eta Irastorza, Arin Bastarrika eta Elizagoyen edozein erabaki judicial

egon aurretik kriminalizatzen zituen; oharrak harrituta utzi zituen euskal talde guztiak eta Frantziako Alderdi Sozialistaren sektore handi bat, zeinak zuzenean edo zeharka ezagutzen zituen armagabetzerako emandako pausoak. Le Rouxek ozta-ozta hamar egun zeramatzan bere postuan. Ez al zuen hain kutsatuta ez zegoen aholkularirik?

Operazioa hasi eta hamabost ordura, Le Rouxek bere hitzak zuzendu behar izan zituen: «Inork ez du eskubiderik arma-suntsitzaile eta, ustekabeen, froga-suntsitzaile bihurtzeko». Bat-bateko testuinguruan egin zuen, Velizy-ko (Yvelines) merkataritza-gune batera egindako bisitaldian. Hilaren 17ko goizeko 08:00etan, «Le Parisien» egunkariak, bere edizio digitalean, dagoeneko esaldi bakarrean azaldu zuen gertakarien bilakaera: «Frantziak eta Espainiak ETAREN aurka egindako operazioa nahaste-borraste bihurtu da». Ordu horretan, Greenpeace erakundeak atxilotuen alde egin zuen, eta bere bazkide espainiarretako batzuk haserretu zituen jarrera horrekin.


Frantziako Poliziaren txostenak konfiskatutako armamentua jaso eta Espainiakoak hurrengo egunetan filtratu zuen: 29 arma txiki, 9 eraso-fusil, 12 subfusil eta karga hutseko 2 granada; horretaz gain, munitzioa, lehergaiak, detonagailuak eta tenporizadoreak. Luhuson konfiskatutako armamentuan zeuden, besteak beste, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideak Auzitegi Nazionalean deklaratzera eraman zituen 2014ko otsaileko bideo ezagun hartan agertzen ziren armak eta lehergailuak. Halere, Frantziako Poliziak esan zuen hainbat egun emango zituztela konfiskatutakoaren edukia ebaluatzen. Inbentarioa egitea ez zen zaila; izan ere, kutxa bakoitzean materiala zehazten zuen agiri bat zegoen, ETAREN zigiluarekin.

Asteartean Christophe Texier epailearengana eraman zituzten bost atxilotuak. Fiskaltzak ez zuen mantendu «gaizkile elkarte» bateko kide izatearen hasierako salaketa, eta «armak eta lehergailuak izateagatik eta garraiatzeagatik» inputatu zituzten. Parisera eraman zituztenetik, Poliziaren galdeketek indarra galdu zuten. Atxilotuek erantzun politikoak ematen zizkieten jasotzen zituzten galdera teknikoei. Ziegatan atxilotuta egon ziren, SDARAK Parisen hiri-inguruko Levallois-Perret udalerrian duen instalazioan.

Haien egoerari buruzko ziurgabetasuna apaltzen joan zen eta aske irteteko zuten aukera handitzen zihoan, hala herri-mobilizazioagatik nola Eliseora heltzen ziren protesten mailagatik. Igande arratsaldean,



MINISTÈRE DE L'INTÉRIEUR



04
(9P)

DIRECTION GENERALE
DE LA POLICE NATIONALE

Levallois-Perret, le 20 décembre 2016

DIRECTION CENTRALE
DE LA POLICE JUDICIAIRE

SDAT 127

SOUS-DIRECTION ANTI-TERRORISTE

à

Réf. : PN/DCPJ/SDAT/DNRTS/
N° /

Monsieur le sous-directeur
chargé de la lutte anti-terroriste

O B J E T : Association de malfaiteurs en vue de préparer des actes de terrorisme, détention, transport d'armes ou munitions de catégorie A ou B en bande organisée et transport et détention de substances ou produits incendiaires ou explosifs en vue de la préparation d'une destruction, dégradation ou atteinte aux personnes en bande organisée, toutes infractions en relation à titre principal ou connexe avec une entreprise individuelle ou collective ayant pour but de troubler gravement l'ordre public par l'intimidation ou la terreur.

AFFAIRE : C/ Béatrice MOLLE, Jean-Noël ETCHEVERRY, Stéphane ETCHEGARAY, Michel BERGOUIGNAN et Michel BERHOIRIGAIN.

REFERENCE : Réquisition n° P.16351000877 en date du 16 décembre 2016 de Monsieur le procureur de la République près le tribunal de grande instance de PARIS (section C1).

J'ai l'honneur de vous rendre compte de l'enquête diligentée en collaboration avec la **direction interrégionale de la police judiciaire de BORDEAUX, antenne de BAYONNE**, et la **direction générale de la sécurité intérieure** pour l'exécution de la réquisition citée en référence.

- LES FAITS -

Le 16 décembre 2016, la **direction générale de la sécurité intérieure** informait la section anti-terroriste du parquet de PARIS du fait que l'organisation terroriste "E.T.A.", entreposerait des armes et des explosifs au domicile de :

* **Béatrice MOLLE, veuve HARAN**
née le 1^{er} janvier 1956 à Biarritz (64)
de nationalité française, demeurant
maison Errekartea- chemin Kurutxeta 64250 LOUHOSSOA.

Terrorismoaren Kontrako Zuzendariordetzaren (SDAT) txostena Luhusoko operazioari buruz.

193

dagoeneko, Baionako polizietako batek aske geratuko zirela iradoki zien. Baina gogoia traidorea da, eta atxilotuek pentsatu zuten Poliziak atxilotuak lasaitzea nahi zutela, haien konfiantza irabazi eta nahi baino gehiago hitz egin zezaten, galdeketetan egin ohi zuten moduan. Alabaina, polizia hark ahapeka esandakoa bete eta aske geratu ziren.

Sendoagoa izan zen Eric Morvan prefetak Departamentuko Kontseiluaren presidenteorde Max Brisson gaullistari abenduaren 20an bertan egindako isil-mandatua. Egun horretan, hainbat agintari Frantziako errabino nagusia eta Aljeriako familia sefardi bateko semea zen Haim Korsia-rekin bazkaltzera joan ziren; errabinoa Baionara heldu zen, Saint Esprit auzoko bere sinagogako eraberritze-lanetan laguntzera. Morvanek Brissoni ziurtatu zionez, atxilotuak «laster itzuliko ziren etxera».

Jean-François Blanco, Paueko Giza Eskubideen Institutuaren sortzaile eta presidentea eta 2017an Jean-Luc Melenchon alternatiboaren zerrendetan agertutakoa izan zen Etcheverryren eta Etchegarayren abokatuak; aldiz, Sophie Bussiere, Angeluko abokatu jeneralista gaztea, hurrengo urtean Asanblea Nazionalean hautagai-zerrenda ekologista batean aurkeztuko zena arduratu zen Berhokoirigoinen eta Bergouignaneren defentsaz. Beatriz Molle-Haranek izen handiko Parisko abokatu bat aukeratu zuen, Jean-Michel Baloup.

Stephane Etchegaray izan zen lehena Biarritzera itzultzen, Orlytik asteartean irten zen azken hegaldian. Mixel Bergouignan eta Mixel Berhokoirigoin tren berean itzuli ziren, hurrengo egunean, konpartimentu desberdinetan. Agindutako kautela-neurrien artean, epaileak elkarren artean harremanetan egotea debekatu zien. Kasualitatez, Parisko Austerlitz geltokian, Berhokoirigoin bere alaba Jenofarekin aurrez aurre topatu zen; alaba Kanadan eta Quebecen bi urteko egonaldia luzea egin ondoren itzuli berria zen. Hainbat aste lehenagotik aireportura haren bila joatea erabakita zuen, baina atxiloketen ondorioz ezin izan zuen. Kasualitateak eragin zuen berriz elkartzeari.

Txetx Etcheverry iritsi zen azkena Baionara. Lapurdiko hiriburu-ko geltokian, eta harrera irrikaz egin zioten pertsoez betetako atari aurrean, treneko bidaia-orduetan prestatutako diskurtso txiki bat irakurri zuen: «Gure herrian zerbait mugitu da zuen konpromisoari esker». «Liberation» egunkariak Jean-Manuel Escarnot kazetaria bidali zuen, zeinak iritsiera deskribatu zuen: «Ikurrinak, txistua, danbolina eta tri-

kitixa: Baionako geltokiko atarian 200 pertsona inguru zeuden; lehen ilaretan, Baionako alkate Jean-Rene Etchegaray eta Sylviane Alaux diputatu sozialista, 51 urteko Txetx Etcheverryri harrera egiten, Parisetik datorren trenetik irten denean».

Bost artisauen askatasunagatik zorion- eta poztasun-adierazpenak egiten ziren bitartean, 115 kilometro hegoaldera larritasuna bizitzen ari ziren, Auzitegi Nazionalak Pariskoa gertatu zen une berean hartutako erabakiagatik. Altsasuko taberna batean, ordu txikitan, hainbat guardia zibilekin izandako liskar batean gertatutakoagatik zazpi espetxeratu egon ziren, eta Carmen Lamela epaileak horietako lau soilik utzi zituen aske. 2017ko uztailean, zazpi horiek eta zortzigarren bat kriminalizatu zituen fiskalak, eta haientzat guztientzat 375 urteko espetxe zigorra eskatu zuen, «mehatxu terroristak» egiteagatik.